

Gómez, R. (1994) "Euskal aditz morfología eta hitzordena: VSOtik SOVra?"

Euskarako antzinako aditz sistemaren inguruko berreraikitze bat egitea da asmoa, behin behinekoa.

Hipotesiak:

- 1) Pertsona komuztadura markak jatorrizko izenordainak ziren, klitiko mailatik igaro ondoren aditzerroari uztartu zaizkionak. Munduko hainbat hizkuntzatan proposatu, aditz inflexioan agertzen diren komuztadura markak jatorriz izenordain izatea.

Izenordain > klitiko > aditzaren komuztadura

Izenordain aske azentugabeak klitiko bihurtu eta gehientean aditzari uztartu zaizkie.

Adibidez: *Finesa, Buryat eta Huicholko hizkuntzak*.

Pertsona-markak: izenordain osoen forma fonologiko laburtuak.

Euskaraz: Euskal aditzeko pertsona-marken izenordain jatorria **na-*, **ha-*, **ga-*, **za-* izan zitezkeen izenordain klitikoen formak, gero aditzari uztartuko zitzaizkionak. (TRASK)

Arazoa ordena da; 1. eta 2. P. sg markak alternatzia baitute: *n-/da-* ; *h-/*-ga, -na*

Schuchardet: 2. P-ko izenordainak **k* zuela uste zuen. (maskulinoaren marka)

Lafon: *n/d* alternantzia azaltzeko atzera jo, euskara kaukasikoa banandu baino lehen.

Martinet: *Sudurkari / horzkari* proposatu lehen pertsona eratortzeko: hitz hasieran *sudurkari / hitz amaieran horzkari*

Trask: antzina pertsona hauetan izenordainak erro ezberdinak.

Jacobson: **naga* proposatu 2. p. fem.-rako

ONDORIOAK: 1. eta 2. P. markak izenordainetatik baina 3.p markak ez, numero markarekin eta bestelako partikulekin lotu.

2) Hirugarren pertsonaren arazoa

Pluralgileak: *-e, -de, -te* (atzizkietara mugatu)

- Jacobson: Euskararen tonuaren garrantzia aldarrikatu. Plurala markatzeko hizkiak aztertu: aldaera azentudun guztiak **ee, *dee, *tee* eta hauek guztiak **dee* -tik -d- diptongo baten ondoren agertzen da; bokal silabagile baten ondoren -d- erori; -e- aldaeran berantiarra goa.

**tee* aldaera txistukari ondoko ingurunean sortu, eta gero analogikoki hedatu. -z aurretik agertzen da euskalkietan, eta hauetan (G, GN, L, BN) -te bakarrik topatu.

**dee* = **d* + *ee* banatu eta ikusi, benetako pluragilea **-ee*. **-d* 3.p. izenordain gradua dela proposatu eta **do* izenordaina berreraiki 3.p.-rako. Orainaldiko d- aurrizkiarekin lotzen du, erlatibozko konplementatzailea hartzean agertzen diren forma ezberdinetan oinarriturik. Bokalarteko kontsonateak 3.p. markatzen zuen **-d* izenordaina.

duen < **da-du-do-en*

-Gómez: Aurreko hipotesi honi oztupoak: 1. *-d-* orainaldian bakarrik; *-en* konplementatzailea adizkiari lotzean nabari den *-n/-en*, *-an* alternantziari buruz. Euskal aditz batzuk agertzen duten *-n* amaiera ez dela partizipio marka eta aditzerroaren barruan sartzen dela esan. Trasketik zioenari jarraituz, *duen* < **da- dun-en*. Jacobsonek ezin azaldu zergatik azaltzen diren **-d-* hauek bokal artean. Beraz, G.-ek pentsatu ez dagoela nahiko arrazoirik 3.p. izenordain bat zegoela pentsatzeko.

2. Absolutibo + 3. datiboa ??????????????????

3) Euskara VSO hizkuntza zen:

- Givón, Vennemann eta Lehman: hizkuntza batean izenordain klitikoaren / konmutadura marken egonguneak jatorrizko izenordain askeen egonguneak zirela; ondorioz, hitzen orden aldaketa erator zitekeela.

-Gómez: izenordain askeak, azentudunak, izen sintagma lexikalen leku berberetan agertu ohi dira, baina klitiko bihurtzen direnean diferentziak gerta daitezke. S. Steelek zioen izenordain subjektuak klitiko bihurtzen direnean perpausaren 2. lekua hartzen dutela; baina G.-ek dio, euskarazko adizki jokatueta antzeman dezakegun pertsona-marken hurrenkerak euskararen honelako hitzorde mota aldaketarik ematen ez dela. Ez du asebetetzen dut/nuen alternantziak, split ergativity :

Euskara oso aspaldiko garai batean VSO (edo VOS) hizkuntza zela pentsatu. Radicksek hizkuntza uralikoetan ikusi, eta hala ikusi zuen eta Gomezek euskararen honakoa ikusi: VSS mota bat berreraiki den protouralikoa baino lehen. Izenordainen klitiketze eta uztartzea VSX garai hartakoa. Subjektuetarako eta objektuetarako pertsona-markak klitiketze-uztartze garaian sortu. Garai hartan, paradigmek eredu akusatiboari jarraitu (euskararen kasuan ergatiboari). 3. P. ez zen markatzen. Pertsona-marka guztiak atzizki moduan azaltzean, aurrizki lekuan dauden markak esplikatze, erregela bat zegoen aditza perpaus hasierako erabateko lekuan egotea eragozten zuena; beraz, klitiko batek edo partikula batek egon behar zuen. Horren ondorioz, aditza babesteko, argumentu absolutiboa mugitu hasierako lekura. Beraz, hitz hurrenkerak:

ABS-V-ERG

Baina orainaldiko 3.pertsonan ABS-n izenordainik ez, 0, eta kasu horretan klitiko ergatiboa da lehen lekua hartu behar duena. **n-e-du-en* > **neuen/nuen*) ERGATIBOAREN LEKUALDATZEA

ARAZOAK:

a) orainaldiko forma guztietan *-a-*

- Trask: pertsona izenordainak 3.p-ko forma uztartu.

- Rijk: aldaketa bat proposatu zuen; *n-k d-* ordezkatu.

-Gómez: adizki bakarra zegoela guztietarako eta beranduago, adizkiari pertsona markak gehitzen joan zaizkiola dio. Lehenik partikulak aditzaren babesgarri, eta gero, partikulen aurretik absolutibo markak. Datiboak ezin zuen lehengo lekua bete, datiboa adierazten duten izenordainak beranduago azaldu. Pluralgileak numero pertsona baino beranduago.

b) iraganeko adizkietan agertzen den tarteko *-n-*

- Oregi: genitiboarekin lotu.

- Trask: pasiboaren markarekin.

-Gómez: -n- iragankorreko objektua markatzen zuen. Objektua egiletasun hierarkian subjektua baino gorago. Objektu guztiak markatzeko komuztadura.marken ordena pertsona hierarkiaren arabera antolatu.